

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

Araua: **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/28/EE ZUZENTARAUA, 2008ko martxoaren 11koa, energia erabiltzen duten produktuei aplikatu ahal zaizkien diseinu ekologikoari buruzko betekizunak ezartzeko esparrua ezartzen duen 2005/32/EE Zuzentaraua eta Kontseiluaren 92/42/EEE Zuzentaraua eta 96/57/EE eta 2000/55/EE Zuzentaruak aldatzen dituena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez.**

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : « DIRECTIVA 2008/28/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 11 de marzo de 2008 que modifica la Directiva 2005/32/CE, por la que se instaura un marco para el establecimiento de requisitos de diseño ecológico aplicables a los productos que utilizan energía, así como la Directiva 92/42/CEE del Consejo y las Directivas 96/57/CE y 2000/55/CE por lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión.» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 81/48, 2008/3/20koa*)

## **EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2008/28/EE ZUZENTARAU**

**2008ko martxoaren 11koa,**

**energia erabiltzen duten produktuei aplikatu ahal zaizkien diseinu ekologikoari buruzko betekizunak ezartzeko esparrua ezartzen duen 2005/32/EE Zuzentaraua eta Kontseiluaren 92/42/EEE Zuzentaraua eta 96/57/EE eta 2000/55/EE Zuzentaruak aldatzen dituena, Batzordearen betearazte-eskumenei dagokienez**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 95. artikulua,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen <sup>(1)</sup> irizpena aztertu dute,

Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Tratatuko 251. artikuluan <sup>(2)</sup>, araututako prozedurari jarraituz,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/32/EE Zuzentaruak <sup>(3)</sup> eta 15. artikuluan arabera gauzatu beharreko neurriei buruzko hiru Zuzentaruak —hots, Kontseiluaren 1992ko maiatzaren 21eko 92/42/EEE Zuzentaruak, erregai likidoz edo gas-erregaiz elikatzen diren ur beroko galdara berrien errendimendu-betekizunei buruzkoak <sup>(4)</sup>, 1996ko irailaren 3ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 96/57/EE Zuzentaruak, etxean erabiltzeko hozkailuen, izozkailuen eta gailu konbinatu elektrikoaren energia-errendimenduaren betekizunei buruzkoak <sup>(5)</sup> eta 2000ko irailaren 18ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/55/EE Zuzentaruak, lanpara fluoreszenteentzako balastoen energia-eraginkortasunaren betekizunei buruzkoak <sup>(6)</sup>— arautzen dute zenbait neurri Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakiaren <sup>(7)</sup> arabera onartuko direla. Erabaki horretan ezarrita dago zein prozedura bete behar dituen Batzordeak berari dagozkion betearazte-eskumenak baliatzeko.

(2) 2006/512/EE Erabakiak 1999/468/EE Erabakia aldatu zuen. 2006/512/EE Erabakian, Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartutako oinarritzko egintza batean funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko zer neurri orokor hartu behar diren kontrolatzen duen arautze-prozedura ezarri zen, eta aukera ematen zuen elementu horietako batzuk ezabatzeko, edo egintza funtsezkoak ez diren beste elementu batzuekin osatzeko.

(3) 2006/512/EE Erabakiari dagokionez, Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen <sup>(8)</sup> Adierazpenaren arabera, Tratatuko 251. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera hartu eta indarrean dauden

(1) EO C 161, 2007.7.13koa, 45. or.

(2) Europako Parlamentuaren 2007ko uztailaren 11ko irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluak 2008ko martxoaren 3an hartutako Erabakia.

(3) L 191 EO, 2005.7.22koa, 29. or.

(4) L 167 EO, 1992.6.22koa, 17. or. Zuzentaraua, azkenekoz, 2005/32/EE Zuzentaruak aldatu zuen.

(5) L 236 EO, 1996.9.18koa, 36. or. Zuzentaru hori honek aldatu zuen: 2005/32/EE Zuzentaruak.

(6) L 279 EO, 2000.11.1ekoa, 33. or. Zuzentaru hori honek aldatu zuen: 2005/32/EE Zuzentaruak.

(7) L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or. Erabaki hori honek aldatu zuen: 2006/512/EE Erabakiak (L 200 EO, 2006.7.22koa, 11 or.).

(8) C 255 EO, 2006.10.21ekoa, 1. or.

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

egintzetan kontrol-dun arautze-prozedura aplikatu ahal izateko, egintza horiek aplikatu beharrekoak diren prozeduren arabera egokitu behar dira.

(4) Aurrez aipatutako Adierazpenean, berehala egokitu beharreko egintzen zerrenda bat dago, eta horien artean dago 2005/32/EE Zuzentaraua. Zuzentaru hori egokitzean, 92/42/EEE, 96/57/EE eta 2000/55/EE Zuzentaruak egokitu egin behar dira, ezinbestez.

(5) Komeni da Batzordeari eskumenak ematea, 92/42/EEE, 96/57/EE eta 2000/55/EE Zuzentaruak alda edo indargabetu ditzan. 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera gauzatu behar da aldaketa edo indargabetzea.

(6) Halaber, Batzordeari eskumenak ematea komeni da, betearazte-neurriak har ditzan energia erabiltzen duten produktu zehatzei aplika ahal zaizkien diseinu ekologikoari buruzko betekizunak finkatzeko. Horien artean, bitarteko epealdian aplikatzeko betearazte-neurriak ere egon daitezke, baita, hala dagokionean, ingurumenarekin zerikusia duten alderdiak orekatzeko xedapenak ere. Neurri horiek orokorrak eta 2005/32/EE Zuzentaruaren funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(7) Horrenbestez, 2005/32/EE Zuzentaraua eta aipatutako 92/42/EEE, 96/57/EE eta 2000/55/EE Zuzentaruak aldatu egin behar dira.

(8) Zuzentaru honen bitartez 2005/32/EE Zuzentaruaren nahiz 92/42/EEE, 96/57/EE eta 2000/55/EE Zuzentaruaren egin beharreko aldaketak teknikoak direnez eta komitearen prozeduran soilik eragiten dutenez, estatu kideek ez dituzte, ezinbestez, beren zuzenbidean sartu behar. Horrenbestez, ez da beharrezkoa horretarako xedapenik ezartzea.

ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

*1. artikulua*

**2005/32/EE Zuzentaruaren aldaketak**

2005/32/EE Zuzentaruari aldaketa hauek egin zaizkio:

1) 13. artikuluan, honako paragrafo hau sartu da: «1 bis. Betearazte-neurri batean, eragindako produktuaren sektorean jarduten duten ETEen espezialitatei dagozkien jarraibideak erants daitezke. Hala badagokio, eta 1. paragrafoaren arabera, Batzordeak material espezializatu gehiago sortu ahal izango du, Zuzentaru hau ETEek aplikatu ahal izan dezaten.».

2) 15. artikulua honela aldatu da:

a) 1. paragrafoa testu honek ordeztu du:

«1. PUE batek 2. paragrafoan araututako irizpideak betetzen baditu, betearazte-neurri batek edo autorregulazio-neurri batek babestuko du, 3. paragrafoko b) idatz-zatiari jarraiki. Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaru bera ere osatu dezakete) 19. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira».

b) 10. paragrafoa testu honek ordeztu du:

«10. Hala dagokionean, diseinu ekologikoari buruzko betekizunak arautzen dituen betearazte-neurri batean, ingurumen-alderdien arteko orekari buruzko xedapenak sartuko dira. Zuzentaru honetan funtsezkoak ez diren

2008/28/EE zuzentaru (EBren Egunkari Ofiziala, L 81/48 2008/3/20koa)

*Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatu dezakete) 19. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.».

3) 16. artikuluan, 2. paragrafoa honela aldatu da:

a) sarrerako esaldian, hau ezabatu da: «19. artikuluan, 2. paragrafoan aipatutako prozedurarekin.»;

b) lerrokada hau erantsi da: «Zuzentarau honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (Zuzentaraua bera ere osatu dezakete) 19. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.».

4) 19. artikuluan, 3. paragrafoa testu honek ordeztu du:

«3. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaion kasuetan, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikagarriak, eta 8. artikuluan xedatutakoa ere bete egingo da.».

#### *2. artikulua*

#### **92/42/EEE Zuzentarauaren aldaketa**

92/42/EEE Zuzentarauko 10 bis artikuluan, «2005/32/EE Zuzentarauko 19. artikuluko 2. paragrafoaren arabera» esaldiaren ordeztu, «2005/32/EE Zuzentarauko 19. artikuluko 3. paragrafoaren arabera» esaldia jarri da.

#### *3. artikulua*

#### **96/57/EE Zuzentarauaren aldaketa**

96/57/EE Zuzentarauko 9 bis artikuluan, «2005/32/EE Zuzentarauko 19. artikuluko 2. paragrafoaren arabera» esaldiaren ordeztu, «2005/32/EE Zuzentarauko 19. artikuluko 3. paragrafoaren arabera» esaldia jarri da.

#### *4. artikulua*

#### **2005/55/EE Zuzentarauaren aldaketa**

2005/55/EE Zuzentarauko 9 bis artikuluan, «2005/32/EE Zuzentarauko 19. artikuluko 2. paragrafoaren arabera» esaldiaren ordeztu, «2005/32/EE Zuzentarauko 19. artikuluko 3. paragrafoaren arabera» esaldia jarri da.

#### *5. artikulua*

#### **Indarrean sartzea**

Zuzentarau hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

#### *6. artikulua*

#### **Hartzaileak**

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon emana, 2008ko martxoaren 11n.

*Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea*

*Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea*

2008/28/EE zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 81/48 2008/3/20koa)